TOLOSAKO UDALA

AB21_083

TOLOSAKO ARKAUTE ERAIKINAREN ESTALKIA BERRITZEKO OBREN ZUZENDARITZA KONTRATATZEKO ESLEIPENERAKO PLEGU TEKNIKOA

X:\Argi\2021\AB21_083 arkaute OZ PL.odt

AURKIBIDEA:

I. EMAN BEHARREKO ZERBITZUAREN EZAUGARRIAK

1. KLAUSULA TEKNIKOEN PLEGUAREN HELBURUA

2. KONTRATUAREN HELBURUA

3. PROIEKTUAREN HELBURUA, ESPARRUA, BETEBEHARRAK ETA ERAIKUNTZA BALDINTZAK
   - 3.1 JARDUERAREN HELBURUAK
   - 3.2 JARDUKETA ESPARRUA
   - 3.3 ERAIKINAREN BETEBEHARRAK ETA ERAIKUNTZA BALDINTZAK
   - 3.4 AURREIKUSITAKO OBRAREN AURREKONTUA

4. JARRAITU BEHARREKO IRIZPIDEAK

5. EGIN BEHARREKO LANEN DESKRIBAPENA: METODOLOGIA ETA EDUKIA
   - 5.1 HASIERAKO LANAK
   - 5.2 OBREN EXEKUZIOAN ZEHAR EGIN BEHARREKO LANAK
   - 5.3 OBRAREN EGIAZTAPEN TOPOGRAFIKO ETA GEOMETRIKOA
   - 5.4. EXEKUZIOAREN KONTROLA ETA KALITATE KONTROLEKO PROGRAMAREN JARRAIPENA
   - 5.5. SEGURTASUN ETA OSASUN KOORDINAZIOA
   - 5.6. TXOSTENAK EGITEA
   - 5.7 OBREN KONTRATAREKIKO HARREMANA
   - 5.8. ADMINISTRAZIOAREKIKO HARREMANA

6. LANTALDEA

7. UDALAK EMANDAKO DOKUMENTAZIOA

8. EGINDAKO LANEN JABETZA

II. LIZITAZIOAN AURKEZTU BEHARREKO PROPOSAMEN TEKNIKOAREN EZAUGARRIAK

III. ERANSKINAK

- I. ERANSKINA: “Tolosako Arkauteko eraikinaren estalkia berritzeko exekuzio-proiektua”, Leire Malcorra Renovales, Isaura Rodriguez Azpiroz eta Nahikari Calleja Moreno arkitektoek (Zür studioa) sinatuta.

TOLOSAKO UDALA

AB21_083

TOLOSAKO ARKAUTE ERAIKINAREN ESTALKIA BERRITZEKO OBREN ZUZENDARITZA KONTRATATZEKO ESLEIPENERAKO PLEGU TEKNIKOA

X:\Argi\2021\AB21_083 arkaute OZ PL.odt

1. KLAUSULA TEKNIKOEN PLEGUAREN HELBURUA

Plegu honen helburua da **"Tolosako Arkauteko eraikinaren estalkia berritzeko exekuzio-proiektua"ri dagozkion OBREN ZUZENDARITZAKO ETA SEGURTASUN ETA OSASUN KOORDINAZIOKO ZERBITZUAREN LANAK** definitzea eta zehaztea, eta, halaber, kontratua arautuko duten baldintza teknikoak finkatzea.

2. KONTRATUAREN HELBURUA

Kontratuaren helburua da "**Tolosako Arkauteko eraikinaren estalkia berritzeko exekuzio-proiektua**"ri dagozkion obren ZUZENDARITZA ETA SEGURTASUN ETA OSASUN KOORDINAZIO ZERBITZUAK EMATEA**.**

- Lan hauek egin beharko dira:

Goian aipatutako obren zuzendaritza fakultatiboaren lanak egitea (obra zuzentzea, obren exekuzioa zuzentzea barne); baita segurtasunari eta osasunari buruzko koordinazio lanak egitea, eta obren kalitatea kontrolatzeko programa eta hondakinen kudeaketa programa gainbegiratu eta betearaztea ere.

Zuzendaritza fakultatiboan sartzen dira, bereziki, Eraikingintzaren Antolamenduari buruzko azaroaren 5eko 38/1999 Legean ezarritako lanak, Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legean eta gainerako aplikazio arauetan ezarritakoak.

Behar izanez gero, kontratu honen zereginen artean honakoak ere badaude: txostenak egitea, ziurtagiriak egitea eta obra bukaerako edo obra likidazioko dokumentuak egitea.

3. PROIEKTUAREN HELBURUA, ESPARRUA, BETEBEHARRAK ETA ERAIKUNTZA BALDINTZAK

3.1. JARDUERAREN BEHARRAK ETA HELBURUA

Tolosako Larramendi kalea 5 zenbakian kokatutako eraikinaren maldadun teilatua eraberritzea. Esku-hartze puntualak gauzatuko dira estalki nagusian, fatxadetako hegaletan eta erdiko solairuko terrazan.

Estalki nagusia: bi isurialdeetako estalki nagusiaren estaldura berrituko da, 10 cm-ko isolamendu termikoa gehituz. Egungo egoeraren analisia egin da, eta kaltetutako egituraren pieza batzuk ere ordezkatuko dira (balkoi baten egituraren elementuren bat ere ordezkatuko da).

Estalki laua (terraza): alde batetik, zorua eta geruza iragazgaitza berrituko dira, eta bestetik, teilaz babestutako hegala ere berrituko da, bertako hormigoia konponduta. Geruza iragazgaitza hegalaren muturreraino luzatuko da (jarraian). Barrualdetik terrazara ateratzeko ateko arotzeria oso baxu dago eta ez dago altuera nahikorik isolamendu termikoa forjatuaren gainean gehitzeko. Beraz, azpiko gelan, barrualdetik, ipini beharko da erabilera zehazten denean (ez dago proiektu honetan sartuta).

Ekialdeko fatxadako hegala: dagoen haustura bat konponduko da. Geruza iragazgaitza eta teila berria

ipiniz. Hau guztia indarrean dagoen araudiaren arabera egingo da.

3.2. JARDUKETA ESPARRUA.

Proiektuaren esparrua Tolosako Arkaute eraikina da (Larramendi 5).

3.3. ERAIKUNTZA BALDINTZATZAILEAK

Exekuzio proiektuak sortutako baldintza eta beharrei erantzun beharko die. Legedian agertzen diren alde teknikoak betetzen dituzten aldaketak onargarriak izango dira, betiere dagokien justifikazioa medio.

Beraz, proiektuak baldintza hauek bete beharko ditu:

- EKTa, bereziki, bete beharko du.
- Obra Udalak onartutako exekuzio proiektuaren arabera gauzatu beharko da.

3.4. AURREIKUSITAKO OBRAREN AURREKONTUA

Exekuzio proiektuaren arabera, obren aurrekontua, **guztira, 118.093,59 €-koa da, % 21eko BEZa barne.** Horietatik 97.598,01 € printzipalari dagozkio eta 20.495,58 € % 21eko BEZari. Kontratuaren balio zenbatetsia **97.598,01 €**-koa da.

4. JARRAITU BEHARREKO IRIZPIDEAK

Proiektua garatzeko orduan, honako irizpide nagusi hauetan oinarrituko da lana:

4.1. ERAIKUNTZA JASANGARRIARI DAGOKIONEZ:

Eraikuntza jasangarria, arkitektura iraunkorra edota ekologikoa ingurumenarekin errespetu handiz jokatzen duena da, eta energiaren erabilera iraunkorra egiten du. Horrez gain, energia berriztagarrietan ikertzera behartzen du, material batzuek naturan duten eragina aztertzearekin batera. Material ekologikoak eta erraz birziklatzekoak erabiltzea bilatzen da. Materiala ekologikoa dela edo ez dela diogu, haren fabrikazioa, garraioa eta biziraupena/ birziklatze/ berrerabilera aintzat hartuta.

Eraikuntza iraunkorrak honako alderdi hauek hartzen ditu kontuan:

- Baliabideen kontserbazioa.
- Baliabideen berrerabilpena.
- Eraikuntzarako material berriztagarriak erabiltzea.
- Materialen biziraupena kontuan izanda, hondakinen prebentzioa.
- Energiaren kontsumoa gutxiagotzea.
- Materialen eta eraikuntzaren kalitatea hobetzea.
- Ingurumena babestea.
- Eraikuntzetan ingurune ez toxikoa sustatzea.

5. EGIN BEHARREKO LANEN DESKRIBAPENA: METODOLOGIA ETA EDUKIA

5.1.- HASIERAKO LANAK

5.1.1. Kontratak egindako eskaintza teknikoaren eta proiektuaren analisiaren azterketa. Laneko plangintzaren azterketa.

Obra Zuzendaritzak kontratak egindako eskaintzari buruzko azterketa zehatz bat egingo du, eskaintzaren alderdi guztiak kontuan hartuta (materialak, makinak, kalitatearen kontrola, teknikariak). Kontratak proposatutako laneko plangintza aztertuko du, baita plangintza zehazteko oinarri hartutako egikaritze metodoak, ekipoak, materialak, azpikontratistak eta abar ere.

Proiektuan aurreikusitako lanak aztertuko dira eta aztertu egingo da, halaber, programa obraren inguruabar zehatzei egokitzen ote zaien (hasteko garaia, eragina jasan arren konponbiderik eman ez zaien zerbitzuak), helburuak lortzeko aukerak zein diren eta aurreikusi beharreko behar osagarririk badagoen. Obren exekuzio prozesua ere aztertuko da.

Obraren exekuzioari dagozkion helburuak lortzeko arazorik aurreikusiko balitz, edota bitarteko gehiagoren beharra balego, Obra Zuzendaritzak bere oharrak azalduko ditu txosten baten bidez.

Hala badagokio, txosten hori Udal Zerbitzu Teknikoei aurkeztuko zaie, kontratua sinatu eta bi asteko epean, gehienez ere.

Udal Zerbitzu Teknikoek txostena aztertuko dute eta agindu ahal izango dute, txostena aurkezten denetik gehienez ere bi asteko epean, osatzeko zenbait alderdi, edo, bestela, ezartzen diren irizpideei jarraituz, berregiteko txostena, onartzeko moduan dagoela ikusi arte.

Horretaz gain, Kontratak obrak egiten ari den bitartean aurkezten dituen bestelako laneko plangintzei buruz ere egin beharko da goian aipatutako laneko plangintzaren inguruko txostena. Era berean, beharrezko gertatzen diren luzapen orokor edo partzialen inguruko txostenak ere egingo dira.

5.1.2. Kalitate kontroleko programa

Obra Zuzendaritzak Kalitate Kontroleko Programaren proposamen bat aurkeztuko du.

5.1.3. Zuinketaren egiaztapen akta

Obrak hasi aurretik, hala badagokio, egin beharreko ekintzen inguruko txosten partzialez gain, zuinketaren egiaztapen akta egingo da obren exekuzio kontratuan aurreikusitako epearen barruan, eta horrek markatuko du obren hasiera.

5.2 OBREN EXEKUZIOAN ZEHAR EGIN BEHARREKO LANAK

Hauek dira obren exekuzioan zehar egin beharreko lanak:

- Udal Zerbitzu Teknikoen eta Kontrataren arteko koordinazioa.
- Kontratak kontratuaren baldintzak betetzen ote dituen egiaztatzeko ikuskapena eta kontrola.
- Obren inguruko komunikazioak eta instrukzioak egitea.

- Egunean zehar emandako aginduak agindu liburuan jasotzea.
- Exekuzioaren plangintza; diagrama partzialen banakatzearekin eta asteko zuzenketarekin, desbideratzeak (arrazoiak) eta haien eragin maila adierazita, eta aldi berean, beharrezko neurri zuzentzaileak proposatuz.
- Kalitate kontrolaren erregistroa; obraren laginketa, entsegu, proba eta egiaztapenak, emaitzen azterketa, eta abar jasota.
- Obrak pleguetan, jatorrizko proiektuan eta behar bezala baimendutako aldaketetan jasotakoaren arabera egiten ari direla egiaztatzeko ikuskapena eta kontrola. Jarraipenerako argazkiak.
- Pleguetan Obra Zuzendaritzaren iritzira uzten diren alderdi teknikoak eta baldintzak proposatzea.
- Planoen interpretazioari, materialen baldintzei eta obra unitateen exekuzioari buruzko alderdi teknikoak definitzea eta proposatzea, betiere kontratuaren baldintzak aldatu gabe.
- Eragiketen ikuskapena eta kontrola.
- Kontratak egin beharreko eraginpeko zerbitzuen planoen lanketa ikuskatzea, bai eta haiek ordezkatzeko beharrezko diren lanena ere, hirugarren bati eragiten dioten lanen baimen eskaeraren gaineko aholkularitza ere sartzen dela.
- Erakunde ofizialetatik eta partikularrengandik obrak egiteko eta obrak eragindako ondasunak okupatzeko baimenak lortze aldera egin beharreko atze-aurreak proposatzea, eta obrekin lotutako zerbitzu eta zortasunek sortzen dituzten arazoak konpontzea.
- Kontratak aurkeztu beharreko Kalitate Kontroleko Programa ikuskatzea eta kontrolatzea, hala badagokio.
- Elementu aurrefabrikatuak edo/eta industrialak obran jasotzea, eta haiei buruzko txosten teknikoa egitea.
- Balizko gorabehera tekniko edo ekonomikoak aurreikustea eta haien konponbideei buruzko txostena egitea.
- Kontratak instalazioei, soldadurei, egiturei, egituren eraikuntza prozesuei eta abarrei lotuta proposatutako konponbideei buruzko azterketa eta aholkularitza, eta konponbide horiek teknikoki eta ekonomikoki egokiak ote diren egiaztatzea.
- Aipatutako konponbideen exekuzioa egiaztatzea.
- Obren exekuzioen ondorioz hirugarrengoei kalterik eraginez gero, haien inguruko peritazioa eta txostena egitea.
- Kontratua normal gauzatzea galarazten duten edo kontratua aldatzea aholkatzen duten obretako gorabehera edo arazoen inguruko proposamenak aldez aurretik izapidetzea, salbuespen kasuetan.
- Obraren exekuzioaren jarraipena egitea ingurumenaren ikuspuntutik. Behar izanez gero, exekuzioaren neurri zuzentzaileak proposatzea.
- Gorabeheren, artxibo orokorraren erabileraren eta obrako korrespondentziaren erregistroa egitea.
- Ziurtapenak egitea eta hilabetero udalari helaraztea, bc3 edo Presto formatuan.
- Kontrol ekonomikorako dokumentuak, neurketen banakapena, onartutako ziurtapenak, prezioen berrikuspenak eta abar. Bai eta obren amaierako memoria ekonomikoa eta azken likidazioa ere.
- Obren epea eta aurrekontua ia aldatu ere egiten ez duten aldaketa normalak definitzea eta haien berri ematea.

- Zigorrak jartzeko proposamenak egitea.
- Bilera guztietako aktak egitea.
- Obraren likidazio proiektua egitea, dokumentu hauek barne: memoria eta haren eranskinak, planoak eta aurrekontua.
- Obrak egiten diren bitartean proiektua aldatu edo osagarririk egin beharra gertatuko balitz, haiek egitea eta behar bezala koadernatzea (4 ale) eta CDan edo *pendrive* batean jasotzea, memoria, planoak, Baldintza Tekniko Partikularren Plegua eta Aurrekontua barne.
- Obren harrera idaztea eta prestatzea. Mantentze lanen inguruko txostena egitea. Txosten horretan labur-zehatz azalduko dira obren eta instalazioen ezaugarri nagusiak eta haien mantentze-lanetarako garrantzitsuak izan daitezkeen gorabehera eta alderdiak. Txosten horrek informazio grafiko ugari jasoko du lagungarri gisa: krokisak, argazkiak eta abar.

5.3. OBRAREN EGIAZTAPEN TOPOGRAFIKO ETA GEOMETRIKOA

Obra Zuzendaritza obren zuinketaren egiaztapenera eta proiektuaren egiaztapen geometrikoa egitera bertaratuko da, Kontratarekin batera, lekuan bertan, egiteko guztiak zuinkatuta eta guztiz definituta egon daitezen.

Edozein aldaketa edo obra osagarri egin beharra sortzen bada, horietako bakoitzerako ere egin beharko dira goian azaldutako lan horiek, bai eta Plegu honetan jasotako gainerakoak ere.

5.4. EXEKUZIOAREN KONTROLA ETA KALITATE KONTROLEKO PROGRAMAREN JARRAIPENA

Bi atal nagusi ditu:

a) Materialen eta egindako obraren kalitate kontrola, zeinak kontratuko agirietan eta kasuan-kasuan aplikagarri diren arau teknikoetan zehaztutakoa izango baitu kontuan.

b) Exekuzioaren nondik norakoak behatzea.

Obrak egiten ari diren bitartean, Obra Zuzendaritzak obren prozesu guztira zabalduko du behaketa hori.

Obra Zuzendaritzak une oro eskatuko du Pleguetan exekuzio sistemari buruz jasotakoa bete dadila. Eragiketaren bat Pleguetan definituta ez egotea gertatuz gero, dagokion baldintza osagarria sartzea proposatuko luke.

Laneko erritmoa eten edo nabarmen jaisten bada, esleipendunak, dagokion txostenaren bidez, horren arrazoiak eta Kontrataren edo hirugarrenen erantzukizuna adieraziko du. Gauza bera egingo luke obren exekuzioaren ondorioz hirugarren bati kalterik eraginez gero, edo bestelako gorabehera garrantzitsuren bat gertatuz gero.

Kontrolak, kasurik orokorrenean, honako hauek barne hartzen ditu:

_ Kalitate kontroleko programa prestatzea.

_ Kontratak material eta obra unitateen lagin hartzea antolatzea. Laginak material edo unitate bakoitzerako aldez aurretik aztertutako sistematika baten arabera hartuko dira, behar bezala definituta bai entitate aldetik eta bai kopuru aldetik, behar adinako adierazgarritasuna izan dezaten.
_ Kontratak lekuan bertan entseguak egitea, hala dagokionean.
_ Kontratak hartutako laginen identifikazioaren, kustodiaren eta zaintzaren ikuskapena.
_ Laginak laborategira baldintza egokietan bidaltzearen eta garraiatzearen inguruko ikuskapena.
_ Entseguak langile kualifikatuek egiten dituztela eta entsegu parte guztiak dagozkion inprimakietan idazten eta betetzen direla ikuskatzea.

Pleguetan jasota ez egon arren beharrezko jotzen diren bestelako entseguak laborategi homologatuetan egingo dira.
Aurreko idatz zatian aipatutako entsegu edo proben emaitzak lehenbailehen eskuratzen saiatuko da Obra Zuzendaritza. Kontratari entseguen emaitzak emango zaizkio, behar izanez gero egin beharreko zuzenketak egin ditzan.

5.5. SEGURTASUN ETA OSASUN KOORDINAZIOA

Lan horietan sartzen dira aurreikusitako lanetarako segurtasun eta osasunari buruzko koordinatzailearen berezko lan guztiak, eta agiri honetan eta indarrean dagoen araudian adierazitako egitekoak egingo ditu, Laneko Arriskuen Prebentzioaren 31/1995 Legea eta obretan segurtasun eta osasuneko gutxieneko xedapenak ezartzen dituen 1627/1997 Errege Dekretua betez. Kontratuan sartutakotzat hartuko dira obra nagusiei buruz administrazioak onartzen dituen aldaketak eta obra osagarriak.

Koordinatzaileak, obrak exekutatu bitartean, egiteko hauek izango ditu:

a) Prebentzio eta segurtasun printzipio orokorren aplikazioa koordinatzea:

1. Erabaki teknikoak eta antolaketakoak hartzean, eta aldi berean edo bata bestearen ondoren garatu beharreko lanak edo lanaldiak planifikatzean.
2. Lan horiek edo lanaldi horiek exekutatzeko behar den denbora kalkulatzean.

b) Obraren jarduerak koordinatzea, bermatzeko kontratistek eta, hala badagokio, azpikontratistek eta langile autonomoek modu koherentean eta arduratsuan aplikatzen dituztela obra exekutatu bitartean Laneko Arriskuen Prebentzio Legearen 15. artikuluan jasotzen diren prebentzio ekintzaren printzipioak eta, bereziki, 1627/1997 Errege Dekretuaren 10. artikuluak aipatzen dituen zereginetan edo jardueretan.

c) Obrak hasi baino lehen, kontratistak egindako segurtasun eta osasun planari buruzko txostena egitea, administrazioak onar dezan.

d) Hala badagokio, obrak exekutatu bitartean segurtasun eta osasun planean sartu beharreko aldaketei buruz informazioa ematea, administrazioak onar ditzan.

e) Laneko Arriskuen Prebentzio Legearen 24. artikuluan aurreikusitako enpresa jardueren koordinazioa antolatzea.

f) Lan metodoak zuzen aplikatuko direla kontrolatzeko ekintzak eta egitekoak koordinatzea.
g) Beharrezkoak diren neurriak hartzea obrara pertsona baimenduak bakarrik sartu ahal izateko; Langileen Estatutuan jasota datorrena betetzen dutela egiaztatzea, obretan zerbitzuak ematen dituzten langileak Gizarte Segurantzako erregimenean afiliatzeari dagokionez, bai enpresa adjudikaziodunak, bai azpikontratatutako enpresek edo langile autonomoek eta abarrek; eta 216/1999 Errege Dekretua betetzen dutela egiaztatzea.
h) Hilero egitea obra bakoitzean ordaintzekoak diren Segurtasun eta Osasun Planean agertzen diren unitateen neurketak.
i) Aldizka txostenak idaztea, eta horietan zehaztea zer egoeratan dagoen obra laneko segurtasun eta osasunari dagokionez.
j) Obrako istripu parteak aztertzea, eta begiratzea zergatik geratu diren eta zer neurri hartu behar diren, eraginpeko kontratistak proposatzen dituen errepikatze arriskuak ezabatzeko.
k) Obren bukaerako egoera egiaztatzea, segurtasun eta osasunari dagokienez, zerbitzuan jarri aurretik.
l) Kasu bakoitzean indarrean dagoen legeriak zehaztutako beste batzuk.

Obretan aldizka egiten diren bisitak obrak behar dituenak izango dira, bai langileak prestatzeko, bai lanak behar bezala jarraitzeko, eta maiztasuna ere obraren lekuek eta faseek markatuko dute.

5.6. TXOSTENAK EGITEA

5.6.1. Aurretiko txostenak

Deskribatu den moduan, hauek dira egin beharreko aurretiko txostenak:

- PROIEKTUAREN balizko ez egite eta anomalien TXOSTENA, hala badagokio.
- KONTRATAren eskaintza teknikoaren eta proiektuaren azterketaren TXOSTENA. LANEKO PLANGINTZAren TXOSTENA, hala badagokio.
- ZUINKETAREN EGIAZTAPEN AKTA
- Obretan jarraitu beharreko KONTROL PLANA

5.6.2 Aldizkako txostenak

- ASTEROKO AKTAK:

Enpresa esleipendunak Kontratarekin astero egiten diren obra-bileretako AKTAK egingo ditu eta administrazioarekin egiten diren bileretakoak ere bai.

- HILEROKO TXOSTENAK:

Hilero txosten bat egingo da, hurrengo hilabetearen 5a baino lehen entregatu beharko dena, eta bertan lanak nola doazen argi eta garbi azaldu beharko da, argazkiekin lagundurik. Txosten horietan, gutxienez, honako hauek jaso behar dira:

_ Sortuz doazen aldaketak kontuan hartuta eguneratutako proiektuaren deskribapen laburra. Oin krokisa ere aurkeztuko da.

_ Obren azpizatiketetako bakoitzean hilabetean zehar egindako lanak. Oin krokisa eta lan bakoitzeko aurrerapen mailaren altxaera ere aurkeztuko da. Agindu liburuan gorabehera aipagarrienak eta oharrak jasoko dira.

_ Laneko programaren jarraipena. Aurreratuta edo atzeratuta dauden lanak zehaztuko dira, eta horren arrazoiak, bide kritikoan dauden ala ez, beste zein lanetan eragiten duten eta abar azalduko da.

_ Kalitate Kontrolaren jarraipena. Hartutako lagin kopurua, egindako neurketa eta entseguak, eta emaitzen laburpena.

_ Obraren aurrekontuaren jarraipena, obraren finantza planari dagokionez dauden desbideraketak aztertuz. Zehaztuko dira obraren indarreko aurrekontua, jatorritik ziurtatutako aurrekontua (aurrerapenei eta benetan egindako obrari dagozkionak banakatuz), eta aurrekontu “eguneratua”, eta, desbideraketarik baldin badago, horien arrazoiak. Informazio hori grafiko metatuen bidez osatuko da.

Horrez gain, hilean egindako unitate bakoitzaren neurketak zehaztuko dira (bc3 edo Presto formatuan), eta hala badagokio, espezifikazioak ez betetzeagatik edo bestelako arrazoiengatik obra zuzendaritzaren iritziz ziurtapenean sartu behar ez diren zatiak, hilabetean eginak egon arren, adieraziko dira.

Zehaztuko dira, halaber, beste hilabete batzuetakoak izan arren aurreko ziurtapenetan sartu ez, eta txostenaren dataren hilabetean sartu beharrekoak diren neurketak.

Dagozkion prezio berrikusketak egingo dira.

Bestalde, prezio kontraesankorrak proposatuko dira eta Kontratarekin eztabaidatzeko txosten bat prestatuko da.

_ Hurrengo hilean egiteko aurreikusitako ekintzak (hilabete horretako ziurtapenaren aurreikuspen bat egingo da).

5.6.3. Txosten gehigarriak

- ANOMALIEI BURUZKO TXOSTENAK:

Enpresa esleipendunak eraikuntza lanetan zehar ikusten diren anomaliei buruzko berehalako txostenak prestatuko ditu Udal Zerbitzu Teknikoentzat, bereziki materialen edo obren exekuzioko kalitate eskasari dagozkion anomaliei buruzkoak, edo eraikuntza arauak ez betetzeari eta abarri buruzkoak, eta egoki jotzen dituen neurri zuzentzaileak proposatuko ditu.

ALDAKETEN INGURUKO TXOSTENAK:

Noizbehinkako proposamenak idatziko dira oinarrizko materialen mota, kalitate eta hornikuntza iturriei buruz, obran definitu beharreko dosifikazioei eta granulometriei buruz, Baldintzen Pleguan jaso gabeko zehaztapenei buruz, obran definitu beharreko xehetasunei eta abarri buruz.

- PROIEKTU ALDATUAK ETA OSAGARRIAK:

Salbuespen gisa, enpresa esleipendunak obretan beharrezkoak diren Proiektu Aldatuak eta Osagarriak idatzi eta koadernatuko ditu (4 ale) eta CDan ere jasoko ditu. Proiektu horietan honako agiri hauek jasoko dira: Memoria, planoak, Baldintza Tekniko Partikularren Plegua eta Aurrekontua.

5.6.4. Bukaerako agiri eta txostenak

Obra bukaerako agirietan dokumentu hauek sartuko dira, obra amaitu eta bi asteko epean aurkeztuko direnak:

- Obra bukaerako ziurtagiria, zuzendaritza fakultatiboaren teknikari arduradunek sinatua.
- Obra bukaerako likidazioa.
- Eraikuntza eta eraiste lanen hondakinak zuzen kudeatu direla egiaztatzen duen ziurtagiria eta dagozkion frogagiriak jasotzen dituen txostena.
- Obren exekuzioan zehar egindako kalitate kontrolaren laburpen txostena, egindako entsegu guztiak eta material eta elementu prefabrikatu guztien ziurtagiriak barne hartzen dituela.
- Obraren bukaerako planoak, non jasoko diren bukaerako benetako egoera eta haren instalazioak.
- Eraikitze prozesuan parte hartzen duten agente eta azpikontraten zerrenda.
- Mantentze-lanen inguruko txostena: enpresa esleipendunak txosten batean jasoko ditu ekipamenduaren eta instalazioen zaintza eta mantentze egokia egiteko jarraitu beharreko aholkuak.
- Exekutatutako obraren agiri horiek eta haien ikus-onetsia, indarreko araudiaren arabera hala badagokio derrigorrezkoa dena, entregatuko dira Administrazio Baldintza Partikularren Pleguan ezarritako epean, obraren onarpen akta sinatzen den egunetik aurrera, eta entregatu behar zaizkio Udalari bai paperean, DIN formatuan, bai euskarri informatikoan, CDan, lizitazioko proiektuaren programa eta bertsio informatikoetan eta Tolosako Udalak erabili ohi dituenetan.

Dokumentazioa erregistro telematikoan aurkeztuko da.

5.6.5. Azken txostena

Obra bukatu eta urtebetera (12 hilabete), Obra Zuzendaritzak azken txostena igorri beharko du.

5.7. OBREN KONTRATAREKIKO HARREMANA

Enpresa esleipendunak etengabeko presentzia izango du obran, eta zazpi (7) egunean behin, gutxienez, Kontratarekin bilerak egingo ditu obran sortzen diren arazoak aztertzeko.

Enpresa esleipendunak bileran aztertutako gaiak eta hartutako erabakiak kontuan hartuta, AKTA egingo du eta Udal Zerbitzu Teknikoei helaraziko die, haiek ere horren berri izan dezaten.

5.8. ADMINISTRAZIOAREKIKO HARREMANA

Enpresa esleipenduna Udal Zerbitzu Teknikoekin harremanetan egongo da eta bilerak egingo ditu astero, obretan sortzen diren arazoak aztertzeko. Enpresa esleipendunak bileretan erabakitakoa kontuan hartu eta AKTA egingo du, zeina Udal Zerbitzu Teknikoei helaraziko baitie, eta Kontratuari buruzko agiri guztiekin batera jasoko baitu.

EPEA OBRA ESLEITZEAN HASIKO DA ETA JASOTZE AKTA SINATZEN DENETIK BERMEALDIA AMAITU ARTE IRAUNGO DU (obraren epea 2 hilabete + gutxieneko bermealdia 12 hilabete).

6. LANTALDEA

Enpresa esleipendunaren lantalde teknikoa, gutxienez, honako kideek osatuko dute:

- ARKITEKTO ZUZENDARI 1, Eraikingintzaren Antolamenduari buruzko azaroaren 5eko 38/1999 Legearen 12. artikuluaren araberako OBRA ZUZENDARITZAz arduratuko dena.
- SEGURTASUN ETA OSASUN KOORDINATZAILE 1, laneko arriskuen prebentzioan aditua eta esperientziaduna, Laneko Segurtasun eta Osasuneko Koordinazioko titulazioa duena.

Teknikari batek goian zehaztutako funtzio bat baino gehiago bete ahal izango ditu, arlo bakoitzari dagokizon tituluazioak eta esperientzia badituela ziurtatzen badu.

Obra garaian pertsonalari lotutako aldaketa edo gehitzeak egiteko, aurretik Udal Zerbitzu Teknikoen onarpena beharko da.

Zuzendaritza fakultatiboak OBRAN izan beharko duen dedikazio haztatua, gutxienez, astean 3 ordukoa izango da.

7. UDALAK EMANDAKO DOKUMENTAZIOA

Esleipendunari lanerako baliagarria izan dakiokeen informaziorako sarbidea emango zaio, Udal Artxiboan dagoena, eta zehazki:

1. Exekuzio proiektua (pdf)
2. Ur Agentziaren ebazpena

9. 8. EGINDAKO LANEN JABETZA

Kontratatutako zerbitzuen emaitza, osorik edo edozein fasetan, Udalarena da; beraz, noiznahi eska ditzake Udalak emaitza hori osatzen duten dokumentuak eta datuak.

Esleipendunaren betebeharra da Udalari ematea datu eta kalkulu guztiak eta Udala informatzea lanak egikaritzerakoan erabilitako prozedurei eta prozesuei buruz. Kontratuari atxikitako ustiapen eskubide guztiak Udalarenak dira, ez beste inorenak.